



Hirigintza
Urbanismo

2022IKIE0008

**OLASOKO UDAL HILERRIKO PANTEOIEI
DAGOKIEN EHORZKETA-ESKUBIDEAREN
EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN
BALDINTZA JURIDIKOEN ETA
EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN
PLEGUA**

ZIOEN AZALPENA.

Olaso Udal Hilerrian badira panteoi batzuk, eta partikular batek ere ez du haien gaineko ehorzketa-eskubiderik. Hona hemen panteoi horiek:

4 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
8 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
11 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
36 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
40 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
110 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
175 ZENBAKIDUN PANTEOIA.

Garai batean, lizitazio publikoa egin zen arestiko panteoien gaineko ehorzketa-eskubidea emateko, eta panteoi haiek erabiltzen ez zirenez, emakida inori esleitu ez zitzaioelako, egokitzen jotzen da beste prozesu publiko bat egitea panteoiak emateko.

Horretarako, baldintza plegu honen bidez, arestian aipatu diren Olaso Hilerriko panteoi horien gaineko ehorzketa-eskubide berrien emakida arautuko da.

Hilobi horien titularitatea Udalarena da, eta titularitateak Udalarena izaten jarraituko du panteoien ehorzketa-eskubideak eman ostean ere; izan ere, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 79. artikuluari jarraikiz, hilobiak jabari publikoko ondasunak dira,

**PLIEGO DE CONDICIONES JURIDICAS Y
ECONOMICAS-ADMINISTRATIVAS PARA
LA CONCESIÓN DEL DERECHO
FUNERARIO SOBRE PANTEONES EN EL
CEMENTERIO MUNICIPAL DE OLASO**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.

En el **Cementerio Municipal de Olaso** existen una serie de panteones sobre los que ningún particular ostenta el derecho funerario. Dichos panteones son los siguientes:

PANTEON N.º 4
PANTEON N.º 8
PANTEON N.º 11
PANTEON N.º 36
PANTEON N.º 40
PANTEON N.º 110
PANTEON N.º 175

En su día se efectuó una pública licitación para la concesión del derecho funerario sobre los citados panteones, y encontrándose los mismos sin utilización, al no haberse adjudicado la concesión a nadie, se estima conveniente llevar a cabo un nuevo proceso público para su concesión.

A tal efecto, en el presente pliego de condiciones se va a regular la concesión de nuevos derechos funerarios sobre los citados panteones del Cementerio de Olaso.

La titularidad de las citadas sepulturas es municipal, y continuará siéndolo tras las concesiones de los derechos funerarios sobre las mismas, dado que el artículo 79 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local establece

Hirigintza
Urbanismo

zerbitzu publiko bati atxikita daudelako eta tokiko erakundeen ardurapeko xede publikoak betetzeko erabiltzen direlako, baita apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 74. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ere. Era berean, ekainaren 13ko Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiari buruzko 1372/1986 Errege Dekretuaren 4. artikulua ohartarazten duenari jarraikiz, Udalaren xede publikoak betetzeko atxikita dauden kategoriaren baitan daude udal hilerriak, hain zuzen ere, zerbitzu publikoak eskaintzen baitituzte.

Beraz, 7/1985 Legearen 80. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, Olaso Hilerriko hilobiak, emakida esleitzeko prozesu hau eginda ere, besterenezinak, bahiezinak eta preskribaezinak izango dira.

Emakidaren xede diren jabari publikoko ondasunek izango duten erabilera pribatiboa kontuan izanik, Tokiko Erakundeei buruzko Araudiaren 75.2 eta 78 artikuluek aurreikusten dute norbanakoek jabari publikoaren zati bat okupatu ahal izango dutela, gainerako interesdunen erabilera mugatuz edo baztertuz. Era berean, aurreikusten dute erabilera pribatu hori emakida administratiborako prozesu baten bidez eman behar dela, plegu honen bidez bideratuko dena, **gehienez ere, 75 urteko emakida epearekin** Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 93. artikulua arabera.

LEHENENGOA: EMAKIDAREN XEDEA

Plegu honen xedea izango da ondoren zehaztuko diren **panteoien erabilera pribatiboa ematea**, une oro, kontuan izanik **ez dela jabetza eskualdatuko**, jabari publikoko ondasunak baitira.

- 4 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
- 8 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
- 11 ZENBAKIDUN PANTEOIA.

que las mismas son bienes de dominio público, por estar afectadas a un servicio público, en cuanto destinadas al cumplimiento de los fines públicos de responsabilidad de las entidades locales, según lo también previsto en el artículo 74 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, y teniendo en cuenta que el artículo 4 del Real Decreto 1.372/1986, del 13 de junio, Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, advierte que dentro de tal categoría de bienes adscritos al cumplimiento de los fines públicos del Ayuntamiento se encuentran los cementerios municipales para la prestación de los correspondientes servicios públicos.

Por lo tanto, a tenor del artículo 80 de la Ley 7/1985, las sepulturas del Cementerio de Olaso, pese al presente proceso de adjudicación de la concesión, serán inalienables, inembargables e imprescriptibles.

Los panteones de dominio público objeto de la concesión van a tener un uso privativo. Los artículos 75.2 y 78 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales prevén la ocupación de una porción del dominio público por los particulares, limitando o excluyendo el uso de los demás interesados. Dicho uso privativo debe otorgarse mediante un proceso de concesión administrativa, como el que se va a desarrollar mediante el presente pliego, y **con una duración máxima de la concesión de 75 años**, a tenor del artículo 93 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

PRIMERA: OBJETO DE LA CONCESION

Va a ser objeto del presente pliego la **concesión del uso privativo de los panteones** que a continuación se señalan, teniendo en todo momento presente que **no se transmite la propiedad** por tratarse de bienes de dominio público:

Hirigintza
Urbanismo

36 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
40 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
110 ZENBAKIDUN PANTEOIA.
175 ZENBAKIDUN PANTEOIA.

PANTEON N° 4
PANTEON N° 8
PANTEON N° 11
PANTEON N° 36
PANTEON N° 40
PANTEON N° 110
PANTEON N° 175

BIGARRENA. BALDINTZA
EKONOMIKOAK

Hona hemen panteoi bakoitzarengatik ordaindu beharko den kanona:

4 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	4.000 €
8 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	4.000 €
11 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	4.000 €
36 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	3.000 €
40 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	2.000 €
110 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	2.000 €
175 ZENBAKIDUN PANTEOIA.	5.000 €

SEGUNDA. CONDICIONES ECONOMICAS

El canon que habrá de ser abonado por cada uno de los panteones es el siguiente:

PANTEON N° 4	4000€
PANTEON N° 8	4000€
PANTEON N° 11	4000€
PANTEON N° 36	3000€
PANTEON N° 40	2000€
PANTEON N° 110	2000€
PANTEON N° 175	5000€

HIRUGARRENA. - ARAUBIDE JURIDIKOA

Jabari publikoko ondasunak diren panteoien erabilera pribatiboaren emakida baldintza administratiboen plegu honen bitartez arautuko da, eta pleguan aurreikusita ez dagoena, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen, tokiko korporazioen Ondasunei buruzko 1986ko ekainaren 13ko Araudiaren bidez eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 13ko 33/2003 Legearen bidez arautuko da.

Emakida emateak ez du esan nahi, inola ere, partzela edo panteoia besterendu edo zergapetu egingo denik. Bestalde, partzela edo panteoia Elgoibarko Udalaren eskuetara itzuliko da, behin emakidaren epea bukatu ostean.

LAUGARRENA. - EMAKIDAREN EPEA ETA IRAUPENA

Emakida **75 urteko** eperako egingo da, emakida egjatzatzen duen titulua ematen denetik aurrera.

TERCERA. - RÉGIMEN JURÍDICO

La concesión de uso privativo de los panteones, bienes de dominio público, se regirá por el presente pliego de cláusulas administrativas, y en lo no previsto en él por la Ley 7/85, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, el Reglamento de Bienes de las corporaciones locales de 13 de junio de 1986, y la Ley 33/2003, de 13 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas.

El otorgamiento de la concesión no supone, en modo alguno, enajenación ni gravamen de la parcela o panteón, que revertirá al Ayuntamiento de Elgoibar al término de la concesión.

CUARTA. - PLAZO Y DURACIÓN DE LA CONCESIÓN

Hirigintza
Urbanismo

Emakidaren epea **luzaezina** izango da. Horrexegatik, behin epe hori bukatuta, eten egingo da jabari publikoaren erabilera pribatiboa, eta instalazioa Elgoibarko Udalari itzuliko zaio.

Emakidaren epea bukatu eta gero, jabari publikoaren erabilera publikoak iraun arren, esleipendunak ez du inolako eskubiderik izango, eta esleipendunak tolerantzia hutsagatik erabili ahal izango du jabari publikoa.

BOSGARRENA: HILOBIEN GAINKO EHORZKETA-ESKUBIDEEN EMAKIDA ESLEITZEKO PROZEDURA

I. Deialdiaren publizitatea:

Deialdi hau jendaurrean jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren ediktuen taulan argitaratutako iragarkien bitartez.

II. Eskatzaileen betebeharrak:

Esleipen prozesuan edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen baditu:

1. Pertsona fisiko bakarra izatea, edota ezkondua egotea. Ezkondu gabeko elkarteak ezkondukoen parekotzat hartuko dira, baldin eta beharrezko erregistroetan jasota baldin badaude.

2. 18 urtetik gorakoa izatea. Ezkonduen edo ezkondu gabeko elkarteren bat osatzen dutenen kasuan, nahikoa izango da ezkontideetako bat edo elkarrekin bizi diren pertsonetako bat 18 urtetik gorakoa izatea. Adin hori beteta izan beharko da eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

La concesión se otorga por un plazo de **75 años**, contado a partir de la emisión del título acreditativo de la concesión.

El plazo de concesión tendrá carácter **improrrogable**, por lo que una vez cumplido el mismo, cesará el uso privativo del dominio público y revertirá el panteón al Ayuntamiento de Elgoibar.

La permanencia en el uso privativo del dominio público transcurrido el plazo de la concesión, no conferirá derecho alguno al concesionario, que ocupará el dominio público por mera tolerancia.

QUINTA: PROCEDIMIENTO PARA LA ADJUDICACION DE LAS CONCESIONES DE DERECHOS FUNERARIOS SOBRE LAS SEPULTURAS

I. Publicidad de la convocatoria:

La presente convocatoria se hará pública mediante la inserción de anuncios de la misma publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

II. Requisitos de las personas solicitantes:

Puede tomar parte en el proceso de adjudicación cualquier persona, siempre que cumpla los siguientes requisitos:

1. Ser persona física única, o bien formar matrimonio. Se asimilarán al matrimonio las uniones no matrimoniales que se encuentren incluidas en los registros pertinentes.

2. Ser mayor de 18 años, bastando en el caso de formar matrimonio o unión no matrimonial que lo sea uno solo de los cónyuges o convivientes, debiendo haberse cumplido dicha edad a la finalización del plazo de presentación de instancias.

Hirigintza
Urbanismo

3. Elgoibarko Udalarekiko zergen eta zehapenen ordainketak egunean izatea, baita Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko gainerako betebeharrak egunean izatea ere.

4. Kontratazeko debeku batean ere sartuta ez egotea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 71. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

III. Behin-behineko fidantza eratzea:

Eskatzaileek behin-behineko fidantza eratu beharko dute, 300 euroko zenbatekoa izango duena, eskaeraren seriotasuna bermatzeko.

Fidantza hori eratzeko, dirua sartu edo zenbateko horri dagokion transferentzia egin beharko da Udalak berariaz irekita duen honako konturen batean. Hona hemen kontu horiek:

KUTXABANK -- IBAN ES93 2095 5036 5210 6002 4899

LABORAL KUTXA - IBAN ES47 3035 0007 2200 7090 0004

Prozesua bukatutakoan, fidantza interesdunei itzuliko zaie, panteoiren baten emakidaren esleipendun izan, eta adierazitako epean, dagokion kanona ordaindu ez duten kasuan izan ezik. Kasu horretan, ez da fidantza itzuliko.

IV. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdiaren xede den prozesuan parte hartzeko eskaerak Elgoibarko Udalaren sarrera erregistroan (HAZ – Santa Ana kalea 2) aurkeztu beharko dira. **Eskaerak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 11n bukatuko da.**

3. Estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Elgoibar, así como del resto de las obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa y de seguridad social.

4. No estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 71 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

III. Constitución de la fianza provisional:

Las personas solicitantes deberán constituir una fianza provisional por importe de 300 euros para garantizar la seriedad de la solicitud.

Dicha fianza será constituida mediante ingreso o transferencia del citado importe a cualquiera de las cuentas bancarias que el Ayuntamiento tiene abiertas a tal efecto, y que son las siguientes:

KUTXABANK -- IBAN ES93 2095 5036 5210 6002 4899

LABORAL KUTXA - IBAN ES47 3035 0007 2200 7090 0004

A la finalización del proceso será devuelta la fianza a las personas interesadas, salvo que hayan resultado adjudicatarias de la concesión de algún panteón y no hayan abonado el canon correspondiente en el plazo señalado. En este supuesto no será devuelta la fianza.

IV. Plazo de presentación de solicitudes:

Las solicitudes para tomar parte en el proceso objeto de la convocatoria deberán presentarse en el registro de entrada del Ayuntamiento de Elgoibar (HAZ – Santa Ana kalea, 2) **finalizando el plazo de presentación el 11 de noviembre de 2022.**

Hirigintza
Urbanismo

Proposamenak postaz bidaltzen baldin badira, eskatzaileak bidalketaren data egiaztatu beharko du posta bulegoko zigilua jarrita, eta era berean, Udalari eskaintza bidali duela iragarri beharko dio, egunean bertan bidalitako faxaren edo telegramaren bitartez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta kontratazio organoak proposamena aurkezpen-epea bukatu ondoren jasotzen badu, ez da proposamen hori onartuko. Hala ere, ezarritako epetik hamar egun igarota, eskaera jasotzen ez baldin bada, eskaera hori ez da inola ere onartuko.

V. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak Udal honek egin duen eredu ofizial normalizatuaren arabera bete beharko dira. Eskabidea plegu honen eranskin doa. Eskabideak, eskatzaileak berak sinatu beharko ditu. Bestela, eskatzaileak ezkonduak edo ezkondu gabeko bikotea baldin badira, eskabidea bi ezkontideek edo elkarrekin bizi diren bi pertsonak sinatu beharko dute.

Eskaera bakar bat onartuko da familia unitate bakoitzeko, eta bertan, panteoi jakin bat aukeratu beharko da berariaz.

Arestian adierazitakoa gorabehera, subsidiarioki, gainerako panteoien gaineko lehentasun hurrenkera ezarri ahal izango da, lehendabizi aukeratu duen panteoiaren esleipendun gertatzen ez denerako.

Eskaerak Elgoibarko Udalaren erregistro nagusian, HAZen (herritarren arreta zerbitzua), Santa Ana kalea 2 behean, aurkeztu beharko dira.

Horretaz gain, eskaerak modu elektronikoa ere aurkeztu ahal izango dira Elgoibarko Udaleko atarian: www.elgoibar.eus.

Cuando las solicitudes se envíen por correo el solicitante deberá justificar la fecha de imposición del envío de la oficina de correos y anunciar al Ayuntamiento la remisión de la oferta mediante fax o telegrama en el mismo día. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida por el Ayuntamiento con posterioridad a la fecha de terminación del plazo. Transcurridos, no obstante, diez días naturales siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la solicitud, ésta no será admitida en ningún caso.

V. Forma de presentación de las solicitudes:

Las instancias deberán presentarse cumplimentadas con arreglo al modelo que se adjunta como anexo al presente pliego, debiendo estar las mismas firmadas de forma personal y exclusiva por quien sea solicitante, o bien por ambos cónyuges o convivientes en el caso de tratarse de un matrimonio o una unión no matrimonial.

Únicamente se aceptará una solicitud por unidad familiar y en la misma se optará expresamente por uno de los panteones.

No obstante, lo anterior, subsidiariamente, se podrá establecer un orden de prelación del resto de los panteones, para el caso de que no resulte adjudicatario del panteón elegido en primer lugar.

Las solicitudes se presentarán en el registro general del Ayuntamiento de Elgoibar, sito en el HAZ (oficina de atención a la ciudadanía), en Santa Ana kalea, 2 – bajo.

Se podrán presentar también, vía electrónica en el portal del Ayuntamiento de Elgoibar: www.elgoibar.eus.

Hirigintza
Urbanismo

Betetako eskabidearekin batera, ezinbestean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Ezkonduen edo ezkondu gabeko bikoteen kasuan, biek aurkeztu beharko dute agiri hori.
- 2.- Hirurehun (300) euroko zenbatekoa duen behin-behineko fidantza eratu izanaren justifikazioa, esleipen prozesuan parte hartzeko.
- 3.- Eskatzaileak ezkontideak edo ezkondu gabeko elkarte baldin badira, inguruabar hori egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

VI. Panteoien gaineko ehorzketa-eskubideen emakida esleitzeko prozedura:

Erabilgarri dagoen ehorzketa-unitate batentzat eskabide bat baino gehiago egiten baldin bada, unitate hori **zozketa bidez** esleitu da.

Aitzitik, erabilgarri dagoen ehorzketa-unitate jakin batentzat eskabide bakarra aurkezten baldin bada, ehorzketa-eskubideak eskatzaile horri esleitu zaizkio.

Arestian aipatutako zozketa banaka egingo da panteoi bakoitzarentzat, hala jardutea beharrezkoa baldin bada. Eskatzaileari lehentasunez eskatu duen eta aitortu zaion panteoiaren emakida esleitu zaio. Hala, modu subsidiarioan eskatu diren gainerako panteoiak hutsik geldituko dira. Ondorioz, txandak lerratu egingo dira eskatzaileen artean.

Zozketa, beharrezkoa izanez gero, Udaletxeko bulegoetan egingo da, Lurralde Batzordeburuaren edo honek eskuordetutako Korporazioko kidearen edo funtzionarioaren aurrean, baita Udaleko idazkariaren edo honek eskuordetutako funtzionarioaren aurrean ere.

Junto a la instancia cumplimentada, deberá adjuntarse preceptivamente la siguiente documentación:

1. Fotocopia del documento nacional de identidad del solicitante o de los dos solicitantes en el caso de tratarse de un matrimonio o una unión no matrimonial.
- 2.- Justificación de haber constituido la fianza provisional por importe de trescientos (300) euros, para concurrir en el proceso de adjudicación.
- 3.- En caso de formar los solicitantes matrimonio o unión no matrimonial, copia del documento acreditativo de dicha circunstancia.

VI. Procedimiento de adjudicación de las concesiones de derechos funerarios sobre los panteones:

En el caso de que se formularan varias peticiones para cada unidad de enterramiento disponible, se efectuará su adjudicación **mediante sorteo**.

En cambio, si se diera la circunstancia de que hubiera una única solicitud para la unidad de enterramiento disponible, los derechos funerarios se adjudicarán a dicha persona solicitante.

El sorteo aludido anteriormente, de ser necesaria su práctica, se realizará de manera independiente para cada uno de los panteones, adjudicando al solicitante la concesión única del panteón solicitado prioritariamente que le sea reconocido, y dejando vacantes los demás solicitados de forma subsidiaria, produciéndose el correspondiente corrimiento de turnos entre los solicitantes con respecto a los mismos.

El sorteo, si fuera necesario, tendrá lugar en las dependencias de la Casa Consistorial, celebrándose

Hirigintza
Urbanismo

Zozketaren emaitza zein izan den jakin ondoren, panteoi bakoitza esleituko da, eta horretarako, ebazpen bat emango da, non esleipendunen zerrenda jasoko baita. Esleipena interesdunei jakinaraziko zaie.

Hamabost laneguneko epean, esleipendunek Udalari ordaindu beharko diote panteoiari dagokion kanona, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko egiaztagirak aurkeztu beharko dituzte.

Arestian adierazitako tramitea egin ostean, Udalak panteoia erabiltzea **gaitzen duen titulua** emango dio esleipendunari, eta titulua Hilerriko erregistroan inskribatuko da. Tituluan hainbat inguruabar identifikatu beharko dira: hala nola, hilobia edo panteoia, edukiera, emakidaren eguna, titularren edo titularren izena, abizena eta helbidea eta emakida bukatuko den eguna.

Arestian emandako epean, panteoiarentzat ezarritako prezioa ordaintzen ez baldin bada, esleipenerako eskubidea iraungi egingo da, eta eragindako eskatzaileak galdu egingo du jarri duen 300 euroko behin-behineko fidantza.

Ordaindu ez delako, emakida iraungi egin dela adierazten baldin bada, emakidaren xede den panteoia berriz esleituko da, eta, horretarako, arestian adierazi den prozedura bera jarraituko da esleipendun izan ez diren eskatzaileen artean.

Esleipena egin eta kanona ordaintzeko epea igaro ondoren, eskatzaileei esleipen prozeduran parte hartzeko jarri duten 300 euroko fidantza itzuliko zaie, kanona ordaintzen ez den kasuan izan ezik.

ante el Concejal de Territorio, o miembro de la Corporación o funcionario en quien delegue, y ante el secretario del Ayuntamiento, o funcionario en quien delegue.

Tras el resultado del sorteo se realizarán las adjudicaciones de cada panteón, mediante resolución que recogerá la lista de personas adjudicatarias, la cual será notificada a las personas interesadas.

En el plazo de quince días hábiles las personas adjudicatarias deberán abonar al Ayuntamiento el canon correspondiente al panteón, y presentar los certificados de estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Diputación Foral de Gipuzkoa y con la Seguridad Social.

Una vez cumplimentado el anterior trámite el Ayuntamiento otorgará a la persona adjudicataria el **título habilitante**, que será inscrito en el registro del Cementerio. En el título se deberán identificar determinados extremos, como son la sepultura o panteón, con la capacidad, la fecha de la concesión, el nombre, apellidos y domicilio de la persona o personas titulares, fecha de finalización de la concesión.

En el supuesto de que, en el plazo citado, no se realizase el pago del canon establecido para el panteón, se declarará extinguido el derecho de adjudicación, y la persona solicitante perderá la fianza provisional depositada por importe de 300 euros.

En caso de declararse extinguida la concesión por falta de pago, el panteón objeto de concesión será objeto de adjudicación siguiendo el mismo procedimiento arriba señalado entre los solicitantes que no hubieren resultado adjudicatarios.

SEIGARRENA.- EMAKIDAREN ESLEIPENDUN DEN PERTSONARI DAGOZKION ESKUBIDEAK

Emakida honen xede den panteoi bakoitzaren ehorzketa-eskubideak eskubidea emango dio titular esleipendunari, etorkizunean, ondorengo eskubidez baliatu ahal izateko:

1.- Panteoia hurrengo 75 urteetan erabiltzea, esleipenduna bera, bere senideak eta hurbileko pertsonak ehorzteko.

2.- Erabiltzailearen izenean, ehorzketa-eskubideari buruzko titulu bat jasotzea. Erabiltzaileak ezkondua badaude edo ezkontideak izan gabe elkarrekin bizi badira, bien izenean egingo da titulua. Titulua erakutsi egin beharko da, panteoia ehorzketak egiteko erabili behar bada; izan ere, titulua eskubide horren bermea izango da.

3.- Erabiltzailearen ehorzketa-eskubideak *mortis causa* eskualdatzea, Elgoibarko hilerrien funtzionamenduaren araubideari buruzko Araudiaren 52. eta 53. artikuluetan zehaztutakoaren arabera. Hori dela eta, ehorzketa-eskubidearen titularrak, edozein unetan, hilobiaren onuraduna izendatu ahal izango du bera hil osterako.

Ezinezkoa izango da ehorzketa-eskubideak *inter vivos* egiten diren egintzen bidez eskualdatzea, ez kostu bidez, ez dohainik.

4.- Esleitutako hilobia berreraikitzea, eraberritzea, handitzea, gehitzea edo apaintzea. Horretarako, alde zuzenetik, udalaren baimena izan beharko da, Elgoibarko udal hilerrietako panteoiak hobetzeko edo eraberritzeko esku-hartzeetarako Udalak onartu dituen irizpideen arabera.

ZAZPIGARRENA: PANTEOIEN GAINKO EHORZKETA-ESKUBIDEAREN

Tras la adjudicación y transcurso del plazo para el abono del canon, se devolverá a las personas solicitantes la fianza por importe de 300 euros depositada para participar en el procedimiento de adjudicación, salvo el supuesto contemplado para el impago del canon.

SEXTA: DERECHOS QUE CORRESPONDEN A LA PERSONA ADJUDICATARIA DE LA CONCESION

El derecho funerario sobre cada panteón objeto de la concesión habilita a la persona titular adjudicataria en el futuro para ejercitar los siguientes derechos:

1.- Utilizar el panteón durante los 75 años siguientes, para su propia inhumación y la de los familiares propios y personas allegadas.

2.- Obtener a su favor un título nominativo, correspondiente al derecho funerario, o bien a nombre de ambos cónyuges, en el caso de tratarse de matrimonio o de ambos convivientes, o ser unión no matrimonial, que se deberá exhibir para cualquier utilización del panteón como objeto de inhumaciones; y que será la garantía de dicho derecho.

3.- Transmitir “mortis causa” la concesión de sus derechos funerarios, a tenor de lo previsto por los artículos 52 y 53 del Reglamento del régimen de funcionamiento de los cementerios de Elgoibar; lo que podrá hacer el titular del derecho funerario, designando en cualquier momento a un beneficiario de la sepultura para después de su fallecimiento.

Todos los derechos funerarios serán intransmisibles por actos “inter vivos”, ya sea a título oneroso o gratuito.

4.- Reconstruir, reformar, ampliar, adicionar o decorar la sepultura adjudicada, previa licencia

Hirigintza
Urbanismo

EMAKIDAREN ESLEIPENDUNAK DITUEN BETEBEHARRAK

Panteoi bakoitzaren emakidaren esleipendun den pertsonak honako betebeharrak izango ditu:

1. Esleitutako panteoiaren kanona ordaintzea. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango da panteoi horren gaineko eskubidearen esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- **Panteoiaren egungo lauzak aldatzea**, gehenez ere, emakida esleitu eta sei hilabeteko epean. Esleipendunak beste lauzak bat jarriko du bere kontura, hain zuzen ere, *“Elgoibarko udal hilerrietako panteoiak hobetzeko edo eraberritzeko esku-hartzeetarako irizpideekin”* bat etorriko dena. Arestian adierazitakoa egiteko, beharrezkoa den udal baimena eskatu beharko da.

3.- Dagokion Ordenantza Fiskalean ezarritako udal tasak, hilerriko zerbitzuei dagozkienak, ordaintzea.

4.- Emakidaren xede den panteoia kontserbazio, apaindura eta garbiketa egoera onean izatea.

ZORTZIGARRENA: HILOBIEN GAINKO EHOZKETA-ESKUBIDEAK ESLEITZEN DITUEN ADMINISTRAZIOAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

Udalak Olasoko Udal Hilerria mantentzeko lanak egingo ditu eta, Elgoibarko hilerrien funtzionamenduaren araubideari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera, ehorketa unitateak modu egokian mantentzeko ikuskatze eta kontrol eskumenak izango ditu.

municipal, y según los *“Criterios para intervenciones de mejora o reforma de panteones en los cementerios municipales de Elgoibar”* aprobados por el Ayuntamiento.

SÉPTIMA: OBLIGACIONES DE LA PERSONA ADJUDICATARIA DE LA CONCESION DEL DERECHO FUNERARIO SOBRE LOS PANTEONES

La persona adjudicataria de la concesión de cada panteón, tendrá las siguientes obligaciones:

1. Abonar el canon del panteón adjudicado, en el plazo de quince días hábiles siguientes al día de la notificación de la adjudicación del derecho sobre el panteón.

2.- **Proceder a la sustitución de la losa actual del panteón**, en el plazo máximo de seis meses, a partir de la adjudicación de la concesión, colocando a su costa una nueva losa que se adecúe a los *“Criterios para intervenciones de mejora o reforma de panteones en los cementerios municipales de Elgoibar”*. Para lo anterior, deberá solicitar la correspondiente licencia municipal de obra.

3.- Abonar las tasas municipales correspondientes a los servicios del cementerio establecidas en las Ordenanzas Fiscales.

4.- Mantener en buen estado de conservación, ornato y limpieza el panteón objeto de concesión.

OCTAVA: OBLIGACIONES Y DERECHOS DE LA ADMINISTRACION ADJUDICANTE DE LOS DERECHOS FUNERARIOS SOBRE PANTEONES

El Ayuntamiento realizará el mantenimiento del Cementerio municipal de Olaso, ejercitando de conformidad con lo establecido en el Reglamento

Hirigintza
Urbanismo

Udalak, lizitazio prozesu honen ondorioz gertatzen diren esleipendun guztiei, uneoro, esleitutako hilobia erabiltzeko duten eskubidea bermatuko die.

Era berean, Udalak honako eskubide eta eskumen hauek izango ditu:

1. Emakida bukatutakoan, panteoiak Elgoibarko Udalari itzultzea, baita bertan egindako obrak ere, edo emakida bukatu aurretik, baldin eta ehorzketa-eskubidea iraungitzen bada.

2. Emakida iraungi aurretik indargabetzea, baldin eta, horretarako, gerora gertatu diren herri intereseko arrazoiak badaude. Hori dela-eta, esleipendunei sortutako kalteak ordainduko zaizkie, baldin eta hori bidezkoa bada. Horiek horrela, kalte-ordainek inola ere ezin izango dute gaintitu norbanakoak emakida dela-eta ordaindu duen prezioa.

BEDERATZIGARRENA: EMAKIDA IRAUNGITZEA, DENBORA IGARO EGIN DELAKO

Panteoiaren gaineko emakidak, **gehienez ere, 75 urteko** indarraldi luzaezina izango du, ehorzketa-eskubidea egiaztatzen duen titulua ematen den egunetik aurrera.

Behin emakidaren epea iraungi ostean, erregistroan ageri den titularrari eskatuko zaio hilobian dauden gorputz hondakinak hustu ditzala. Horretarako, bi aukera izango dira: hondakinak hezurtegitara eramatea, edo bestela, erraustea.

Betebehar hau bete ezean, jarduera Udalak egingo du modu subsidiarioan, norbanakoaren kontura.

del régimen de funcionamiento de los cementerios de Elgoibar, las facultades de inspección y control para el adecuado mantenimiento de las unidades de enterramiento.

El Ayuntamiento garantizará en todo momento a cada uno de las personas adjudicatarias que resulten del presente proceso, a efectuar la plena utilización del panteón adjudicado.

A su vez, el Ayuntamiento de Elgoibar ostentará los siguientes derechos y potestades:

1. Revertir al Ayuntamiento los panteones, incluyendo las obras correspondientes ejecutadas sobre los mismos, a la finalización de la concesión, o con anterioridad en el caso de producirse la caducidad del derecho funerario.

2. Dejar sin efecto la concesión, antes de su vencimiento, si se justifica en razones sobrevenidas de interés público, resarciendo los daños que se ocasionen a los adjudicatarios, siempre que sea procedente; no pudiendo en ningún caso superar las posibles indemnizaciones el importe del precio abonado por el particular por la concesión.

NOVENA: EXTINCIÓN DE LA CONCESION POR TRANSCURSO DEL TIEMPO

La concesión sobre el panteón tendrá una vigencia improrrogable **máxima de 75 años**, contados desde la fecha de emisión del título acreditativo del derecho funerario.

Expirado el plazo de la concesión, se requerirá al titular registral a fin de que proceda al vaciado de los restos contenidos en la sepultura, trasladándolos a la fosa común o procediendo a su incineración.

Hirigintza
Urbanismo

Epea eman arren, epea bukatu aurretik, hilobia Udalari itzultzeko aukera izango da, indarrean dagoen Elgoibarko Udalerriko udal hilerrien araubideari eta funtzionamenduari buruzko Araudiaren 51. artikuluan aurreikusitako irautze kasuetan.

Emakida bukatutakoan, hilobiak Udalari itzuliko zaizkio, baita panteoietan egindako obra guztiak ere.

Emakidaren epea luzaezina izango da. Horrexegatik, behin epe hori bukatuta, eten egingo da jabari publikoaren erabilera pribatiboa, eta instalazioa Elgoibarko Udalari itzuliko zaio.

Emakidaren epea bukatu eta gero, jabari publikoaren erabilera publikoak iraun arren, esleipendunak ez du inolako eskubiderik izango, eta esleipendunak tolerantzia hutsagatik erabili ahal izango du jabari publikoa.

HAMARGARRENA - EMAKIDAREN ERRESKATEA

Udalbatzarrak, iraungi aurretik, emakida indargabetzeko eskubidea izango du, baldin eta, gerora, hori justifikatzen duten herri intereseko arrazoiak gertatzen badira. Hori dela-eta, emakidadunari kalte-ordaina emango zaio sortutako kalteengatik. Kalte-ordaina ematea bidezkoa ez bada, ez da emango. Dena dela, eman daitezkeen kalte-ordainek inola ere ez dute gaudituko norbanakoak emakida dela-eta ordaindu duen prezioaren zenbatekoa.

HAMAIKAGARRENA.- PLEGUAREN INTERPRETAZIOA

Kontratazio organoak eskumena izango du administrazioarekiko kontratuak interpretatzeko, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak

En caso de incumplimiento, se realizará tal actuación por el Ayuntamiento, subsidiariamente y a costa del particular.

El plazo se otorga sin perjuicio de la posible reversión anterior al Ayuntamiento de las sepulturas, en los casos de caducidad previstos en el artículo 51 del Reglamento de régimen y funcionamiento de los cementerios municipales de Elgoibar.

A la finalización de la concesión, se producirá la reversión al Ayuntamiento de las sepulturas, incluyendo todas las obras ejecutadas sobre los correspondientes panteones.

El plazo de concesión tendrá carácter improrrogable, por lo que una vez cumplido el mismo, cesará el uso privativo del dominio público y revertirá la instalación al Ayuntamiento de Elgoibar.

La permanencia en el uso privativo del dominio público transcurrido el plazo de la concesión, no conferirá derecho alguno al concesionario, que ocupará el dominio público por mera tolerancia.

DECIMA.- RESCATE DE LA CONCESIÓN

La Corporación Municipal se reserva el derecho de dejar sin efecto la concesión antes del vencimiento, si lo justificasen circunstancias sobrevenidas de interés público, mediante indemnización al concesionario de los daños que se le causasen, o sin ella cuando no procediese, no pudiendo en ningún caso superar las posibles indemnizaciones el importe del precio abonado por el particular por la concesión.

DECIMOPRIMERA. - INTERPRETACIÓN DEL PLIEGO

Hirigintza
Urbanismo

argitzeko, herri interesa dela medio kontratua aldatzeko, kontratua deuseztatzeko erabakia hartzeko eta kontratuaren ondorioak zehazteko.

**HAMABIGARRENA: - JURISDIKZIO
ESKUDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor litezkeen auzi guztietarako administrazioarekiko auzietarako araubidea izango da kontuan.

El órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta.

**DECIMOSEGUNDA. - JURISDICCIÓN
COMPETENTE**

Para todas las cuestiones que pudieran suscitarse con motivo de este contrato, será competente el orden jurisdiccional contencioso-administrativo

ERANSKINA

PANTEOIEN GAINEN EHORZKETA-ESKUBIDEAREN EMAKIDARI BURUZKO ESLEIPEN PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAERA EREDUA.

Nik,jaunak-andreak
(eskatzaile bakar baten izena jarri. Senar-emazteen
kasuan, ezkontza egiaztatu egin beharko da),
.....(e)ko
(e)an bizi naizen (..... Posta Kodea),
..... urte, NAN
zenbakia, telefono zenbakia eta
..... posta elektronikoa
ditudan honek, ondorengoa aditzera ematen dut:

1.- Olaso Hilerriko ondorengo panteoiaren gaineko
Ehorzketa-eskubidea emateko egingo den esleipen
prozesuan parte hartzeko eskaera egiten dudala:

... zenbakidun panteoia (adierazi zein aukeratu den).

2.- Arestian aukeratutako Panteoiaren esleipendun
gertatzen ez banaiz, Olaso hilerriko ondorengo
panteoien gaineko ehorzketa-eskubidea emateko
egingo den esleipen prozesuan parte hartzeko
eskaera egiten dudala, ondorengo hurrenkeraren
arabera:

- 1.- ... zenbakidun panteoia.
- 2.- ... zenbakidun panteoia.
- 3.- ... zenbakidun panteoia.
- 4.- ... zenbakidun panteoia.
- 5.- ... zenbakidun panteoia.
- 6.- ... zenbakidun panteoia.

3.- Ez nagoela sartuta kontratatzeko debeku batean
ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 71.
artikuluaren zehaztutakoari jarraikiz.

ANEXO

MODELO DE SOLICITUD PARA PARTICIPAR EN EL PROCESO DE ADJUDICACION DE LA CONCESION DEL DERECHO FUNERARIO SOBRE PANTEON

D./D^a.(solo se
indicará el nombre de un solicitante, o en su caso
de los dos cónyuges, justificando el hecho del
matrimonio), con domicilio en
..... de
(Código postal.....) deaños de
edad, con D.N.I. n^o. n^o de
teléfono.....y correo electrónico
....., hace constar:

1.- Que solicita su admisión en el proceso de
adjudicación de la concesión del Derecho Funerario
sobre el siguiente panteón del Cementerio de
Olaso:

Panteón N^o.....(Señalar la opción que se desee).

2.- Que en caso de no resultar adjudicataria de la
concesión del Panteón antes escogido, solicita su
admisión en el proceso de adjudicación de la
concesión del derecho funerario de los siguientes
Panteones del Cementerio de Olaso y en el
siguiente orden de preferencia:

- 1^o.- Panteón N^o.....
- 2^o.- Panteón N^o.....
- 3^o.- Panteón N^o.....
- 4^o.- Panteón N^o.....
- 5^o.- Panteón N^o.....
- 6^o.- Panteón N^o.....

3.- Que no se halla incurso en ninguna de las
prohibiciones de contratar enumeradas en el
artículo 71 de la Ley 9/2017 de Contratos del
Sector Público.

Hirigintza
Urbanismo

4.- Elgoibarko Udalarekiko zergen eta zehapenen ordainketak egunean ditudala, baita Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko gainerako betebeharrak ere.

5.- 300 euroko behin-behineko bermea jarri izana egiaztatzen duen agiria eransten dudala.

6.- Olaso Hilerriko Panteoien gaineko Ehorzketa-eskubidearen emakida dela-eta onartu diren Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguetan onartutako baldintza guztiak onartzen ditudala.

....., 2022koaren ...(a)

ESKATZAILEAREN SINADURA

4.- Que está al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Elgoibar, así como del resto de las obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa y de seguridad social.

5.- Adjunta documento acreditativo de haber prestado una garantía provisional de 300 euros.

6.- Acepta plenamente las condiciones establecidas en los Pliegos de Cláusulas Económico Administrativas aprobadas para la concesión del Derecho Funerario sobre Panteones del cementerio de Olaso.

..... ade de 2022

FIRMA DE LA PERSONA SOLICITANTE,